



Ekonomia Bultzatzeko, Merkataritzako,
Ostalaritzako eta Turismoko Zinegotzigoa
Concejalía de Impulso Económico,
Comercio, Hostelería y Turismo

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Mugikortasuneko eta Lurralde
Antolaketako Departamentua



donostia UP!
san sebastián
GARAPEN EKONOMIKOAREN ETA BERRIKUNTZAREN SUSTAPENA 2016
IMPULSO AL DESARROLLO ECONÓMICO Y LA INNOVACIÓN 2016
PROMOTION OF ECONOMIC DEVELOPMENT AND INNOVATION 2016

DONOSTIAK BAT EGIN DU PASAIAKO BADIA ERABERRITZEKO PROIEKTUAREKIN, ETA, ERA HORRETAN, SMARTKALEA JARRIKO DU ALTZAN

Ekonomia Bultzatzeko Zinegotzigoak, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera, aurten, Smartkalea proiektua jarriko du abian Altza auzoan, portu-inguruneke Donostiako zona horretan jarduteko diseinatutako hitzarmenaren esparruan. 125.000 €-ko aurrekontuarekin, Donostiako Alde Zaharreko Kale Nagusian jadanik abian den SmartKalea proiektua errepikatuko da Altzako kale batean; kale hori bi instituzioen eta auzoko Merkatarien Elkartearen (Auzoa) artean erabakiko da, kontuan izanik interes edo potentzial komertziala nahiz lehendik dauden saltokien parte-hartze aktiboa.

“Kale Nagusian hain emaitza onak ematen ari zaigun **SmartKalea** hautatu dugu Altza auzoan gauza bera egiteko, herritarren bizi-kalitatea hobetzen laguntzen duen proiektu berritzailea izateagatik”, adierazi zuen **Ernesto Gascok, Ekonomia Bultzatzeko zinegotziak**. “Alde Zaharrean, saltokiek proiektuan modu aktiboan parte hartzea eta inplikatzeari azpimarratzen dute; horrela, lankidetzara publiko-pribatuko eredu berria sortu ahal izan baita, eta horrek **maila berezia eman die kale horretako saltokiei**. Baliabide teknologiko ezberdinak eskaini zaizkie, eta, horiei esker, negozioen kudeaketa hobetu dute”, nabarmendu zuen Gascok. Halaber, gogoratu nahi izan zuen SmartKalea proiektua egin nahi dela Gipuzkoako beste udalerrri batzuetan.

Bestalde, **Mugikortasun eta Lurralde Antolamenduko diputatua den Marisol Garmendiak** jarduerara **Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2015-2019 Kudeaketa Plan Estrategikoan kokatu zuen**; izan ere, foru gobernuaren asmoa da Gipuzkoako herritarren aurrean zenbait proiektu estrategiko aurkeztea lehentasunezko jarduerara moduan, eta horien artean aurkitzen da **Pasaialdea eraberritzea**. Zehazki, Garmendiak ondorengo adierazi zuen: “egungo foru gobernuaren nahia da programa oso bat garatzea, epe labur eta ertainera bultzatze aldera hondatutako hiriguneetako jarduerara komertziala eta horien eta ekipamenduen birgaitzea eta berreskuratzea, **Pasaialdeako** herritarren premiei erantzunez, biztanleriaren lurralde-garapena eta ongizatea lortzen laguntzeko, gune horretako ekonomia, hirigintza, gizarte eta kultura birsortzeko helburu orokorraren barnean”. **Garmendiak** baita ere azpimarratu nahi izan zuen “**Donostiak asko duela esateko Pasaialdearen eraberritze osoan**, bai partekatzen duen lurraldearengatik, baita hazkunde ekonomikorako, gizarte-kohesiorako eta kultura eta turismo arloko sustapenerako Pasaia badiaren inguruneke herritar guztien onerako elkarrekin abian jar ditzakegun proiektu eta aukera ezberdinegatik ere”.



Hiri berritzailea
Ciudad innovadora

fomentosansebastian.eus

Donostiako **Alde Zaharreko Kale Nagusian** 2014an abian jarritako **SmartKalea** hiriko beste gune batzuetara eta beste udalerri batzuetara hedatzeko asmoarekin sortu zen. Proiektuaren helburu nagusia da ingurumen-arloko iraunkortasuna, energia-eraginkortasuna, herritarren parte-hartzea eta gardentasuna sustatzea, puntako teknologia erabiliaz. Horretarako, ondorengo jarduera-eremuak definitu zituzten:

1.- Energia Eraginkortasuna eta IKTeak negozioetan eta etxebizitzetan:

- Kontsumo energetikoak eta urarenak monitorizatzeko gailuak.
- Aholkularitza energia aurrezteko neurriekin.
- Energiaren erabileraren inguruan sentsibilizatzea.
- Klean kokatutako negozioentzat prestakuntza eta IKTeak ezartzea.

2.- Kaleko azpiegituren iraunkortasuna:

- Argiteria Publiko Adimentsuaren Sistema.
- Oinezkoen mugikortasuna: pertsonak zenbatzea kaleetan eta saltokien barruan, pertsonen tracking-a klean zehar.
- Bestelako proiektuak: WiFi konektibitatea, mugikortasuna/logistika/segurtasuna, e.a.

3.- Informazioaren Integrazioarako Smart Plataforma eta Proiektuaren Adierazleak: kaleko datuak monitorizatzea, eta, eguraldiari buruzko informazioarekin eta hiriko ekitaldi edo emanaldiekin batera, hiriarentzat, udalerri mailan nahiz enpresei eta herritarrei begira, balio erantsia duten adierazleak ateratzea.

Hauek dira SmartKalearen helburuak:

- Ezartzen diren zonak Smart hiri bilakatzea, herritarren bizi-kalitatea hobetearren.
- Aurrezpen energetikoa eta ekonomiko handiagoa lortzea hiru eremu nagusitan: saltokiak/ostalaritza, hiriko etxebizitzak eta azpiegiturak, ingurumenarekiko konpromisoari eutsiaz.
- Herritarrak eta merkatariak/ostalariak energia aurreztearen eta iraunkortasunaren inguruan sentsibilizatzea.
- Negozio-aukera berriak sortzea saltokientzat eta kolaboratzaile teknologikoentzat.

Parte-hartzaileek onura hauek izango dituzte:

- Saltokiak/ostalaritza: kaleko sustapena/bistaratzea, marketinga.
- Kolaboratzaile teknologikoak: kanpoko proiektzioa, produktuen/zerbitzuen erakusleihoa.



Hiri berritzailea
Ciudad innovadora

fomentosansebastian.eus